



Erronkak:

Nola hobetu genezake kirol-instalazioak espazio irekietan (pumptrack) erabiltzeari buruzko informazioaren kudeaketa?

Azpierronkak:

- Nola hobetu dezakegu aire zabaleko **kirol-espazioen erabilerari buruzko datuen bilketa?**
- Nola sailka **genezake erabilerari buruzko informazioa profilaren**, ohituren eta denbora-aldien arabera?
- Nola **bistaratu genitzake datuak**, udalei eta erabakiak hartzeari buruzko informazio baliotsua emateko?

Testuingurua:

Bizkaiko Foru Aldundiko (aurrerantzean, BFA) Kirol Zerbitzuak, bere eginkizunen artean, aholkularitza ematen die udalei kirola egitearen inguruan, dinamizazioan lagunduz eta bere instalazioen bat programen bidez finantzatzen lagunduz.

Gaur egun, aholkularitza BFAREN esperientzian eta behaketan oinarritzen da, bai eta kirol-arloko profesionalekin harremanetan jartzean eta kirol-ohiturei buruzko inkestak erabiltzean ere.

Teknologiaren erabilerak balioa ekar dezake, aire zabaleko kirol-instalazio horien okupazioari eta erabilerari buruzko informazioa udalen eskura jarriz, udalen eskumen-eremuaren barruan zerbitzuak dinamizatzeko edo planifikatzeko jardueretarako oinarri izan dadin.

Zehazki, baliozkotzat jotzen da instalazioen erabilerari buruzko informazioa izatea goraka doan kirol honetan: [Pumptrack](#). Gaur egun, hainbat udalerrik dituzte dagoeneko instalazio horiek: Etxebarri, Lemoa, Karrantza, Amorebieta, Bilbo, Portugalete eta Atxondo, besteak beste. Gehienak duela gutxikoak direnez, interesgarria da horien erabilera eta bilakaera ezagutzea.



Helburuak:

BFAk eta udalek Pumptrack-aren eskaria eta erabilera ezagutzeko irtenbideak bilatzen ditugu (profilak, motak eta instalazioak gehiago edo gutxiago erabiltzen diren unek).

Eta hori baliagarria izango da udalek helburu hauek lortzeko:

- Instalazioen erabilera optimizatzea.
- Zabalkunde/sustapen handiena behar duten aktiboak zein diren jakitea.
- Instalazio horietan egindako inbertsioa baloratzea.
- Erabiltzaileek instalazio horiek erabiltzeko dituzten ohiturak ezagutzea.
- Neurri edo zerbitzu gehigarriak hartzeko aukera aztertzea.

Zer nahi dugu?

Alderdi hauek hartuko ditugu kontuan:

- Erronkarako balio argia eta garrantzitsua proposatzea.
- Merkatuan trakzioa duen soluzio teknologikoa.
- Informazioa modu landuan bistaratzea, analisisia errazteko.
- Informazioa hainbat irizpideren arabera ikusteko malgutasuna (adibidez, profila, erabilera, denbora-tartea...).
- Adopziorako eta inplementaziorako erraztasuna.
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: Irtenbide egokia ezagutza digitalen maila desberdinak dituzten pertsonentzat.
- Soluzioaren eskalagarritasuna.

Prozesua eta data garrantzitsuak:

Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna** hau da: **2023/10/31**.

Hautaketa-prozesuak urrats hauek ditu:

- Gehienez 5 enpresa hautagai hautatzea, haien konponbideak planteatutako erronkarekin duen garrantziaren eta bat-etortzearen arabera.
- 5 enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala ezagutzeko.
- 3 enpresa finalista hautatzea.
- 3 finalistek pilotu-proposamena aurkeztea.
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea.

Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko urtarrilean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.



Zer lortuko duzu?

Ordaindutako pilotua, gehienez 15.000 eurokoa.